

## BESTELAKO XEDAPENAK

HERRIZAINGO SAILA

5268

*EBAZPENA, 2011ko urriaren 11koa, Herrizaingo Saileko Araubide Juridiko eta Zerbitzuen zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko ikuskizun publikoen eta jolas jardueren ordutegiak ezarri eta jarduera horien beste alderdi batzuk arautzen dituen araudia bigarrenez aldatzen duen Dekretu egitasmoa jendaurrean jartzen duena.*

Herrizaingoko sailburuak 2011ko irailaren 7an emandako Aginduaren bidez, onartu egin zen hasiera ematea Euskal Autonomia Erkidegoko ikuskizun publikoen eta jolas jardueren ordutegiak ezarri eta jarduera horien beste alderdi batzuk arautzen dituen araudia bigarrenez aldatzen duen Dekretu egitasmoa izapidetzeko prozedurari. Xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 14. artikulua araberan, presazko prozedura bidez izapidetuko da.

Xedapen orokorrek herritarren eskubide eta interes bidezko eragiten badiete, entzunaldiaren izapidea igaro beharko dute, betiere aipatutako 8/2003 Legearen 8.1 artikuluaekin bat etorritik; eta euren izaera dela-eta beharrezkoa bada, jendaurrean jarri beharko dira.

Hori dela eta, Xedapen orokorrak egiteko prozeduraren arautzen duen abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 8. artikuluaekin bat etorritik, aurreproiektua jendaurrean jarriko dugu 10 egunez; Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Horrenbestez, azaldutako guztiagatik eta Herrizaingo Sailaren egitura organiko eta funtzionalari buruzko abuztuaren 28ko 471/2009 Dekretuaren 14.2.h) artikuluaekin bat etorritik, hauxe

### EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Jendaurrean jartzea, 10 egun baliadun, Euskal Autonomia Erkidegoko ikuskizun publikoen eta jolas jardueren ordutegiak ezarri eta jarduera horien beste alderdi batzuk arautzen dituen araudia bigarrenez aldatzen duen Dekretua, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Bigarrena.– Aurreko paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako eta alegazioak aurkezteko, Euskal Autonomia Erkidegoko ikuskizun publikoen eta jolas jardueren ordutegiak ezarri eta jarduera horien beste alderdi batzuk arautzen dituen araudia bigarrenez aldatzen duen Dekretuaren edukia eskura egongo da Herrizaingo Sailaren Araubide Juridiko eta Zerbitzu Zuzendaritzan (Gasteizko Donostia kaleko 1ean) eta Herrizaingo Saileko Internet-eko web-orrialdean: <http://www.interior.ejgv.euskadi.net>.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko urriaren 11.

Araubide Juridiko eta Zerbitzuen zuzendaria,  
IÑAKI CALONGE CRESPO.